


NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

EUSKAL HERRIAN BARN



JOSE MARIA AGUERRE, Almandotarra. DIARIO DE NAVARRA antolatuta k o «AXULAR SARIA» deitzen den izkribitzale konkursa- ren irabaztaile. Zorionak!

«Euskal Esku- langintza» liburua

Juan Garmendia Larrañaga Jaumak «Euskal esku-langintza»-ri buruz liburu batzuek prestatu ditu eta jarraituko zale argitaratzeari beste li- burukin.

Oraingoz Iru liburu eratu ditu «Añamendi» delako Li- buru-bildumak argitara eman- ak.

Oraingo hau Irugarrena da eta hontan artzaintzaren bi- zia, gaztagintza, yoare (ioa- le) - lanketa (ioaregileak), aitzkoragileak, abarkagileak eta eriolegileak azaltzen di- ra. Beteluko eriolegilearen berriak jakinarazi dira, bai- ta ere Urbia, eta Leitzeko gaztagintzak eta aitzkorag- ileak.

Ederaz eta euskeraz idat- zitako Irugarren tomo hau azaldu berria da.

Durango «Euskal liburu eta disko Azoka»

Urteoro Durango Erkar- teak «Euskal Liburu eta Dis- ko Merkata» antolatzen du Azaroaren lehenbiziko egu- nean (Omia Sañdu egunean alegia). Atzo beraz iriki zan Azoka hau eta dirudienez ge- ro eta garrantzi handiagoa izaten du urtez urte.

Merkatua Iru eguez irika egonen da: Atzo, eta dato- rren larunbatan eta igande- an (Azaroren 4. eta 5. etan). Orduak: Goizetan: amar ter- dietatik ordu bietaraño, eta arratsaldetan: bostetatik be- deratzietaño.

Oitura denez, Azoka Du- rangoko Santa Maria Urba- rriko delakoaren elizako ar- kupetan egonen da.

Euskal Herri guziko ogei- tabi Inuguru «Liburu Etxeak» edo «Editorialak» beren libu- ru eta diskoak erakustera etorri dira.

Bidekoa da Sari ederrak izanen direla liburu eta disko onenendako.

Azokaren batera euskal fol- kloreri buruzko agerke- tak, eta erakustaldiak eman- den dira.

Ignazio Iturria Elizondokoa hilla

Elizondoko Ignazio Iturria Zabala jauna, Mitxeltoneko nagusia zana, il berri da lau- retanogaita zazpi urte zitue- larik.

Iragan den Urrilaren 23 ean il zan eta Donosti eta Iruñeko «Astelen Orria» de- lakoetan bere euskeraz idat- zitako hil-argiriak agertu zi- ran. Euskaldun eta Euskalt- zale jatorria izan zan.

Bere ahaietakoek har ditzat- ten nere doluminik biotzko- rrenak. Goian bego.

Euskaltzaindia'ren berriak

Euskal Akademiak onhartu du Elgoibarko seme zen Pe- dro Miguel Urruzuno euskal idazle eta Euskaltzaindiaren laguntzaile zenari omenaldi bat egiteko. Datorren 1973 urteko Urtarrilaren (Ilibeltza) 21 ean izanen dela esan di- gite: Egun hontan berean Euskaltzaindiak Elgoibarren bere hileoroko batzarra izan- en du.

«Haurgintza Minean» liburua irabaztaile

Euskaltzaindiak bi urtean behin «Domingo Agirre» de- ritzan «Euskal Nobela» Sa- ria antolatzen du. Pasatu be- rri den 27 egunean Donosti- ko Jauregiaren egun zan hileo- rako batzarrean Euskal Aka- demiak Sari hori buruz ho- nako erabakiak onhartu zuen: «Haurgintza Minean» deit- zen dan euskal nobelari Le- henbiziko Saria emateko. Sa- ri honen 25.000 pezeta ditu eta Bizkaiko «Caja de Aho- rros» delakoak emanak dira. Nobela honen egile eta irabaz- taileak Mikel Zarate jauna da.

Mahiburuok Pierre Laf- fitte, Xabier Leta eta Euse- bio Erkiaga izan dira.

Zorionak Zarate jaunari biotzez.

IKUSLE

EUSKARA Obanos-en

Ezdu denbora aunitz euskara galdu dela erri polit hortan: Campion zaharri entzun izan dio- gu (ezdu 40 urte) horko bereko jende zahar- rin mintzatu izan zela euskaraz, bereziki (ongi oroitzen banaiz) Loyola deiturako bere adiskide batekin.

Gure lagun iruñ-sème batek ere, gerla den- boran tristeki galdia, joaten zelarik ahalidatara erri hortara, kontatzen zigun arriturik gelditze- zela hango andere xahar batekin solastatzen zen aldioro; mintzazeko doña edo tonilloa arri- garri zitzaioela, Obanos-ko gazte jendez arrot bestelakoa zuelakotz. Berak, Baztan aldeko ba- ten izketa modua, zion, nabaitzen ziola; hala- bainan, Obanos bere hartako alaba harek eus- karaz zakienik, etzuen ikasi; etzidan alpatu be- dere.

Itzak ebakitzeko eta esateko euskal solfu bezalako bat nabaitu izan dugu guk ere, orai erdalun diran Mañeru-aldeko zaharren bateri, orai 40 urte baino guttiago.

Alpatu izan dugu noiz bait, 1911 garren ur- tean, Obanos-en eraikitzen ari ziralarik erriko Eliza, bedelkapena ospatzean apirilaren 25-ean, Akta edo Ageria euskaraz, erdaraz eta latinez izkinbatu zutela; euskarazkoa gordetu izan zen Herrikoetxean, eta itzez itz ronela dio:


Haita Sañdua Erromakoa Pio amargarrena zenean; Iruñeko Apezpizua Jose Lopez de Men- doza eta Garcia Jauna, erriotako Parrokoa Sal- vador Garlosain, eta Alkatea Vicente Zabalegui. Jaungoikoaren Gloriarako eta S. Juan Bautis- taren onorean eliza au eguintzen; eta bere len- bitzuko arria egungo egunean bedikatu eta lpi- filuzen Apezpizua Jaumak, Apaizaren, erriko ge- dearen eta emen beren izenak utzi dituzten guizonaren aurrean.

Obanos Apilaren oguei eta bortzgarren egu- nean 1911. (Siguen las firmas del Sr. Obispo, del Párrcoy del Alcalde).

OBANOS-KO TOPONIMIA EDO TOKI-ZENAK

Oraino ere euskara gaixok Obanos-en (Pa- per zaharretan hala-hala irakurtzen da beti, Oba- nosko, batere aldatu gabe) irauten du, baina landetan, arrien artean, beien eta oilloen ar- tean. Huna toki-izen batzu, euskal herri batean ditezken baino euskaldunago diranak:

Barrancoandia. Lecerburua (terminación de la sima). Bicupea (bicu, piku, fiku). Errotalde. Estagubel (esta, ester, aster, aunitz toki-izen- tan sartzen da eta ezakigu zer adiarazten duen, Esteribar, Esterenguibel, Estaregui, Asteria, As- terain, Astrain). Ibarbero. Iturgaz (gaitz, abrup- ta). Iturrieta. Lamiategui (lamia izakin, ere eazutzen ditugu, Lamiarri (e) ta, Arizkun-en, Lamiocingoerreca, Berako Alzate-n, lamia da si- rena edo andere eder bat, eskuetan lispillua



eta urrezko orrazia daramatziena eta Bertiza- ranako etxe-arma-arrietan ikusten duguna). Le- gardalea. Legardavidea. Lizapea (Elizapea). Lu- gorria. Nequea. Recandia (Erreca). Unbizcar eta beste asko.

AYEZKOA-KO ERRANERAK ETA IGAR- KIZUNAK

Asmaketako piripitaki edo Igarkizunetan, Ikus-mikus gisa, Nafarroan bildu ditugu zen- bait, eta aurrean, artean jostatzeko, euskaraz ikasten ari diran aurrean artean bereziki, ongi elduko diralakoan ematen ditugu hemen. De- nak, Ayezkoan eta Zaraitzun behintzat, hunela asten dira:

- 1.—Iaun bat lepoareki eta buru gabe, bi besoeki eta zango gabe...
- 2.—Beti kotxean eta beti bustirik...
- 3.—Etxe bat zuria, bazterrik ez atari ez leiorik, trankarik ez
- 4.—Pobreak barreiatzen eta aberatsak bitzen...
- 5.—Xurixko da, gorrixko da, pentsatzeko gaitoxko da...
- 6.—Amiña zear bat, xostaka batekin Ipurdian.
- 7.—Bi tutu-rutu, lau tata-rata, Istupa, amuko eta ardatza.

- 8.—Mifia mifia lurpeko, Andre ederra Ekiko Lope txapar ondoko...
- 9.—Piripitaki, paepataki, Nik baitakit gauza bat...
- 10.—Mandra (malndre) bat, arizkoa ez. Guzia estaltzen eta ura ez...
- 11.—Mendira-tekoan etxera belra, etxera-tekoan mendira belra.
- 12.—Mintzazen da ta mihik ez badabila ta zangoik ez Elurra bezala zurri ta bika bezala beltz...
- 13.—Arbola kaskorik gorenera igan eta ugaltarik txikiena ezin pasa...
- 14.—Arka ponpolinatua giltzark gabe desarrailatua...
- 15.—Axuri xutuan xuri, antxu zutuan gorri, ardi zutuan beltz.
- 16.—Aragian barnean atorra, zer da...?

- 1.—Atorra. 2.—Mihia. 3.—Arraulzea. 4.—Mu- kiak. 5.—Arraulzea. 6.—Maats zimurra. 7.—Bela. 8.—Tipula... otsoa. 9.—Elurra. 10.—Ahuntzaren adarrak. 11.—Eskutitza edo karta. 12.—Alnaurria. 13.—Urria. 14.—Marzuza-Masusta. 15.—Argizaglia edo kandela.

A. APAT ETXEBARNE



José Rota Orradre, Garralda'ko Irudiegillea

Orreaga'ko erromeslaria

Jose Rota Irudiegillea

Euskal kutsu aundikoa, polita, benetakoa ta aberatsa degu Aezkoa'n Garralda erria. Saratsutik Orreaga'ra dijoan bide ondoan arkitzen da, ipar aldera eratua. Auzo asko ditu, Gaur 61 sendi bizi dira.

Gizon berexi bat ezagu- tu dut, erri zoragarri on- tan, José Rota Orradre iru- diegillea, bertako semea.33 urte ditu ta berez baserri- tarra da.23 urtekin asi zan eskulaneetan. Aunak jaten duan bezala, berak errex marrazten zuan. Bereala marrazkien inguruak zu- ran aitzorekin ebakitzten zituan. Ondorean egurrez- ko ur untzi batzuek egiten saiatu zan, gero Frantzia'n ikusilako zurezko azpillak. Lenengo inguruia egiten, Gurutzte batekin alegindu zan. Garai artan, elizako irudiak eginez ezagutu zu- ten bere errian. Bereala India'ra eramateko arrizko

Amabirbirjina bat eskatu zioten.

Orain dala amar urte e z k e r o t i k, Euskalerriko gaik erabiltzen ditu. Zor- tzen bat urte izango dira, artzai bat bere txakurra- kin bukatu zula. Gero be- lako gaitikin asi zan; Aez- koa'ko alkatea ta bere emaztea, Orreaga'ko erro- meslaria, errekele guda mutilla eta abar.

Gaiek billa dabilela oar- tzen da, erri berexi bat ta gizon indartsua dauzkala ondoan. Bertako arpegiak asko esaten diote. Gauza polita bat ikusitakoan, egu- rran jarri nai luke. Bere irudi oiek egiten ari dala, gero ta geingo ikusten ta

pensatzen ikasten du. Es- kulanak, bere burua aurre- ratzen ta bear bezala jaten laguntzen dio.

Orain Ibañeta'ko juda buruzagia egin nai luke bere txakurra ta aize ada- rrekin.

Bereun irudi dagoneko izango dira, bere eskutik aterarik. Zerbait egiten as- ten danean bi aste bear di- tu bukatzeko.

Bere irudi oien bitartez, Euskalerriarren edertasuna ta nortasuna ezagutzen ika- si du. Orain gero ta geingo jakin nai luke, orlarako asko irakurtzen du. Bere lanetan, euskal kutsua ta indarra nabaitzen dira ugari.



Arte gaitan, irudi grie- gako oso atsegin zaizkio.

Bereiztat danetan onena Migel Anjel da. Rodin ere atsegin zaio. Hernandez, Kano, batez ere Antzela maite ditu.

Gizon baten irudia egi- ten ari danean, indarra, begiratu, arpegia, bere naia azaltzen alegintzen da. Andre baten irudia, esku artean daukanean be- rriz, bere irriparra, begi- ratu esitsua ta biotz ona agertu nai ditu. Orain mu- tiko bat egiteko gogoia dau- ka, bizitasuna agertzeko. Eskuakin egiteko, zaldia- ren tridia iduritzen zaio egokia ta izan leiken gau- zik politena.

Bere lanetan gauza bat garbi ikusten degu Eus- kalerriarren zaleasuna, gu- re lurraren kutsua. Itz gu- ztakin esango genuke, bere irudi oietan, edertasuna ta egia- ren maitasuna ikusi di- tugu.

Gizon bezala, oso atse- giña ta alaia degu. Euske- ra maite du, polita, ab- ratsa ta berea dalako. Gure erezia izan leiken gauzik zoragarriena iduritzen zaio.

Orrelako gizonak, Aez- koa'ko nortasuna berezia agertzen digute. Alakoak bat dira emengo gizase- meak langilleak, argiak garbiak ta azkarrak. Aez- koa ibarrak aspalditik es- kulaneetan trebetasun aun- dia azaldu digu. Ortarako naikoa da ikustea etze aurrean dauzkaten a r r i landuak, barrenean ontziak eta sukaldeak ta gordeta dituzten bitzi eder asko. Len, bertan, danetik egi- den bai zuten eta ez no- landi.

Merezi du ba, mendi bazter ortara joatea, base- rritar zintzo ta artillari drebe au ezagutzeko, Eus- kalerriko gizon argi bat arkituko bai du lanean. LATXAGA

GURE IKASTOLAK (V) ZABAL KUNDEA



Orai arte esan diren guziak «Zabalkunde-ko orloian sartzen dira; erderaz «fomento del vascuence esan ohi den ekintzan. Etxegintzan, ikusten ez den zimendu edo oinarritako lana bezala da. Kezka sortu beharra zegoen, eus- kal gauzak ankapertuak bai zeuden gure artean; askok ez zuten Nafarroa euskal herriztat jotzen ere. Nork eska- tuko, duela hamar urte, ikastolak Iruñen? Eta Iruña esatean beste edozein herrirra esan genezake.

Zabalkunde kontuan ba da pundu bat sua pizturik eduki duena: Haundien euskal eskolak. Duela berrogei ta hamar urte, 1922-ko irailaren 17-an, eskola bi idekitzeko erabakia hartu zuen gure orduko Diputazioak. Berri jakinagaria da hau. Seminarioan, bat; eta maisugintzako «Normal» eta bigarren mailako «Institutoan», beste. Askotan ahatu ohi dugu gure aurrekoek egina, eta iduritzen zaigu Inor ez bezala jatorrak gerala gu, euskeraren alde zertxoren bat bultzatzean.

Diputaziaren dirabaki hau gure egunak arte bete da. Mila ta bost ehun pezeta diru polita izango zen garai hartan, urteko saria hori bai zuen irakaste bakoitzak. Espal- niako gerlak ere ez zuen hautsi Seminarioko euskal eskola, eta gure egunetara irauten du. Besteak, huts-arteren bat gora behera, humeak egin ditu eta hamabirenbat tal- de ba zen, igaz, gure Diputazioren babespean esjuara kasten Iruñeko huri buruan.

Eta arreakoandirik hartutako kuttun hau aurrera ate- ratzea eta ugaritzea. Principe de Viana-ko euskal sailari zor zaio: Diez de Ulzurrun jaun sendagileak; arduradun bezala, pizturik irauterazi zion urrezko etzelak bete dituen jokabide hori.

Bertsolarien txapelketak prestatzea ere zabalkunde-ko talde honen gauza izan da beti gure artean. Herriz herri ibili ohi diren eginkizuna ahal bezain ongi betezen. Azkenekoz, gure txoko guzietara heldu izan diren euskal fastak beren ondore egokia ekarri dute; eta ez da txikiena, euskara jakintza gaia bezala, pentsabde guzitako naparrak on hartu dezaketen aberastasun berezia dela adieraztea. Zabalkunde sailak garrantzi gehiegia du txantxetan erabi- tzeo; berrogei ta hamar urte duela, lehenbiziko euskerazko eskolak sortu zirelarik mundura etorritako ekintza bezala jo dezakegu. Gure ustez Principe de Viana-n du bere lekua. Sagi

AXULAR SARIA

GERTATUA NERE AMARI AITUE

Bein batean gan onen ziren kito famili zubi baten azpira egun batzun pasatzeria eta audik ibiltzen omentzen eskian eta an urbil artan bai omentzen nekazari etxebat eta etxeartakoak beti beldurrez zerbat ebatsiko zela eta egun batez etxeartako gizona eta andrea gantziren belarre- tara mendiko belalbetara eta utzi zutzen bi mutiko etxeai kasuitten eta erran zen amak ez gateko urrun kasuitek kitoak deus ebatsi gabe.

Bi mutikoak asi ziren pilotan yostetan etan amak errana atzendu zituzten eta kito andrea erre egoki eta mutikoyek batre etzakitelak ollo bat ebatsi eta mutiko oye kusi zuten olloa luma kendu eta eltzean sartzen aizela kito andrea, eta gantziren etxera eta kontatu zuten olloak eta bat taia.

Batek beritzeari erraten zuten «orai zer egin beardugu, amak tortzekin yoco gatu. Pensatu zuten noiabaltze olloa kendu biar zela eta in zuten katubat il, gantziren zubiaren ondora eta kusi zuten kito andrea bazayela ina biltzera silia egiteko eta utzi zuten bortz urteko mutikobak; eltzai kasu iten eta mutikori asperu.

Gan zen ya ama ageri zen eta orduan bi mutik oye lasterka gan tziaren eltzearren ondora eta atra olloa eta sartu katua eltzean muturrez goiti eta bat gan tzen bere olloaikin etxera eta bertzea gelditu zen zubi gañean beire eta andik piska batera etorri zen mutiko txarura eltzearren ondora eta kusi zuen katua ortzak agerien eta arritua egon tzen ari begira eta ikusi zuelarik ama uyu egin zion. «Ama olloak badu ortzik» eta amak erran tzioten: «ez seme, ez, olloak ezdu ortzik» eta mutikoak «gure eltzeko olloak baitu bada ortzak» eta gan zen andrea kusteria eta olloain partez arpatu zuen katua. Zer txaskua gan zuen etzuen olloa salda bezein gootik artikio katu salda.

Unekin akabatzen da eta beste bat arte.

ANA MARI EXART ERRATZU

KANARIOA

Bein batean Lesaka'ko gizon batek pentsatu zuen bere lagun bateri bisita bat egin behar ziola. Eta eraman behar ziola kanario bat erregaloz.

Ala bere kanarioarekin bazijoan estaziora. Trenako bi- lletia artuzeko utzi zuen kanarioa bazter batean.

Eta etorri zanean trenu sartu zan barrenean eta ala irixi zan Doneztebanera. Bere lagunaren gana juan eta erran zion:

—Ongi, ongi eta zu ere bai?

—Bai, bai onso ongi.

—Zer gabiltz?

—Ementxen etorri nai zan kanario bat zuri ekartzera.

—Ederki, ederk, eta nun daukazu?

Eta Juanetik erraten dio:

—Oh, oh, oyi! Ederra egin dut. Lesakako estazioan utzi dut. Eta alaxen gelditu ziran bik' arrituak, etzekitelarikan zer erran.

Lourdes Maritxalar Tapia. Lesaka.